

ADARRA
Pedagogi Erakundea



- Berdintasunari, emakume-ereduari, bere beharrei eta interesei buruzko elkarrizketan emakume guzti-guztiak sartzearen beharra planteatzen du feminismo dialogikoak. Emakume izateko eredu edo modu bakarrik ez egotea da abiapuntua eta, ondorioz, emaitza eta estrategia ezberdinak aberasgarriak izan daitezke. Zalantzarik gabe, badira emakume guztiok komun ditugun behar eta eskubideak, eta horiek betetzeko borrokatu behar da.



Ahotsen aniztasunak eztabaidak aberasten ditu, ikuspuntu ezberdinetatik: teoretik, praktikatik, edota kultura errealitate anitzetan edo gizarte-talde ezberdinetan parte hartzetik.

Feminismo Dialogikoai buruzko Jardunaldien Konklusioak (Bilbon, 2006eko martxoaren 21an eta 22an)

Emakume guztiak, ikasketarik ez dutenak barne, asko eman dezakete beraien errealitate eta esperientziatik. Hala ere, eremu asko, batez ere espazio ofizialak, jardunaldiak, komunikabideak... emakume akademikoek bete izan dituzte.

- Beste errealitateak gehitu ezker, hau da, emakume guztiak gehitu ezker, itxuraz "gaindituta" dauden funtsezko gaiak berreskura daitezke. Azken urteotako

eztabaidek erlazio handiagoa izan dute emakume-talde batzuen beharrekin, ez emakume guztienekin, eta emakume-talde horiek duten ikuspen (ikusgarritasun) handiagoa dela eta, berdintasuna gauzatu delako mitoa sortu egin da. Mito arriskutsua da, egunero baieztatu dezakegun bezala, desberdintasuna mantentzera eraman dezakeelako. Horregatik guztiarengatik, garrantzizko lan bat daukagu: balore unibertsalak eta errebindikazioak berreskuratzea, errealitate guztietatik.

- Emakume guzti-guztiak mugimendu feministekin bat etor daitezen eta bere eskubideak errebindika ditzaten, beharrezkoa da beraien ahotsak, beharrak eta ikuspuntuak gehitzea, berdintasun-plano batean. Bateratzea bezalako gaiak planteatzen direnean, beharrezkoa da errealitate guztiak, kultura, gizarte eta lan-aniztasuna kontutan izatea. Adibidez, honelako kasuak aintzakotzat hartzea: hain zuzen ere, beste emakume batzuentzat garbiketa-lanak egiten dituzten emakume askoren egoera, non nagusiak, dagozkien lan-eremuetan, gizonezkoen soldataren parekoa eta ordutegi egokia lortzeko borrokatzen ari diren emakumeak baitira.
- Abiapuntua hauxe dugu: ez dagoela gizarte-talderik edo kulturarik non genero-berdintasuna lortu baita; ondorioz, ez dauka zentzurik planteatzea kultura batzuk beste batzuk baino aurreratutago daudela. Gainera, horrela planteatu ezkerro, arrazakeria gehi dakieke egun dauden desberdintasunei. Denok daukagu helburu berbera, eta denok asko eman diezaiokegu elkarri xede hori lortu ahal izateko.

Ikuspuntu horretatik, kultura aniztasunak aberasten gaitu, jarraibide berriak ematen dizkigu, arazo eta egoera berrien aurrean jokatu ahal izateko.

- Ezinbestekoa da borroka komunak adostea, borroka feministetan aurrera egiten utziko gaituztelako. Esaterako, genero-indarkeriaren aurkako lanean, ez baita gertatzen kultura batean edo gizarte-maila batean bakarrik.
- Kultura ezberdinetako emakumeek heziketa berdintasunerako tresnatzat hartzen dute; baina, berdintasun hori erreala izan dadin, beharrezkoa da emakumeek sentitzea barne daudela, onartuak direla. Esaterako, pertsona ijitoek ez lukete ikusi beharko heziketa ijitoak ez direnen kontua dela, denon kontua baizik, eta hauteman behar dute ez duela exijitzen edo suposatzen norberaren nortasunari uko egitea.



Planteamendu feministak baliagarri zaizkigu geure buruari hainbat gai birplanteatzeko; horietako batzuetan aurrera egin behar da eta, beste batzuk, ordea, berriak dira edo era berriak hartzen dituzte informazioaren gizarlean.

- Emakumeok gizonezkoen ikasketetan sartu gara; gizonak, ordea, emakumezkoetat hartzen diren karreretatik aldentzen dira.
- Balorazio ezberdinak egiten dira emakumezkoen eta gizonezkoen jokabideen inguruan: "neskei aprobata egiten diete eta mutilek gaititu egiten dute", "neskek suspenditu egiten dute eta mutilei suspenditu egiten diete". Mutilak heldugabetzat hartzen dira eta borondate onez tratatzen dituzte, baina "neskak basatiak dira eta ez dute ahaleginik egiten".
- Genero-aginduak funtzionatzen du, oraindik ere:
Mutilen kasuan: Ahultzat hartuak izatea eta intimitateaz hitz egitea saihestu behar dute. Protagonistak izatea, beren bizitzak arriskuan sartzea exijitzen zaie eta "behar adinako maskulinoak" ez diren mutikoek sufritu egiten dute. Gainera, beraiek gune gehienak okupatzen jarraitzen dute eta, nerabeen artean batez ere, harroena, neskak gaizki tratatu arren gehien ligatzen duena, horixe da arrakasta lortzen duena.
Nesken kasuan: Erabilgarria, ederra, menpekota izatearen eredia sustatzen da, oraindik ere. Komunikabideetatik "printze urdinaren" mamua bultzatzen jarraitzen dute, baina, aldi berean, erakarpena eta harreman ezezkorrak, sufriarazten dutenak alegia, lotzen dituzte.

Hezkidetzan lan egiteko, ahaleginak egin behar dira ahots guztiak norabide berean bateratu ahal izateko; hau da, nerabeen ahotsak (mutilenak zein neskenak) gehitzeko.

- Eskoletan espazioak, foroak sortu behar dira, non pertsona guztiek egitasmo komunetan parte hartzen baitute.
- Ikasgeletan eta ikastetxean antolakuntza-erak bilatu behar dira, berdintasunezko eta elkartasunezko harremanak errazteko, harreman erasokorren, indibidualisten eta bazterketa sortzen dutenen aurrean.
- Testuliburuaren sexismoa berraztertzeaz gain, sarean formula berriak bereganatzen ari den sexismoa ere berrikusi behar da. Nerabe guztiak, neskak eta mutilak, balore sexistetan gizarteratzen ari dira sarean, web orrialdetan, chatetan, e.a. sartzen baitira, irakasleen edo senideen laguntzarik gabe.
- Gaurko egoeraren inguruko hausnarketa eta azterketa bultzatu behar da: emakumeok ezin dugu gure aurkako erasorik jasaten jarraitu, eta ez dugu onartu behar mutilek erantzukizunik gabe jokatzea. Beharrezkoa da aurreiritziak lantzea, komunikabideek sustatzen dituzten estereotipoak eta ezberdintasunak eta gure inguruan daudenak, erakarpen-ereduak, genero-estereotipoak hedatzeko bide berriak zalantzan jartzea, maskulinitasun berriak bultzatzea, e.a.
- Hezkidetzan egiten den lana, oro har, kultura aniztasunak eta beste desberdintasunak zeharkatu behar dute. Elkartasuna funtsezko elementua da horretarako.

Bilbo, 2006ko iraila